



ZORTZI GURPILEN GAINEAN TREBEAK

Lau saio egin dituzte ikaztegiatan patinetan ibiltzen ikasteko; bihar, bidegorrian zehar ibiliz bukatuko dute ikastaroa » 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-06-12**

VIIURTEA 1.726.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jokin Monfort teknikaria eta Andoni Iturzaeta zinegotzia, atzo Kultur Etxean, San Joan jaien aurkezpenean. I. GARCIA

«EGUNERO FESTA IZAN DADILA» LORTU NAHI DUTE SANJOANETAN

TOLOSA Atzo aurkeztu zuten egitaraua; hilaren 20tik 25era izango dira; Koadrila Eguna, alardea, San Joan sua, aurrekoa,... ez dira faltako » 5

Alurr gaur eta Korrontzi taldea bihar, Dantza Astearen baitan

TOLOSALDEA Villabonan izango dira Oinkarik antolatuta; Tolosan, bihar, Dantzari Txiki Eguna » 4

'Berastegi lorez blai' txapelketa antolatu du kultur batzordeak

BERASTEGI Astelehenera arte eman daiteke izena; loreduen leiho edo lorategiak sarituko dira » 6

Aurrerako hiru pilotari Nafar Jokoen finalean

LEITZA Iruñeko Labriten gaur infantilek eta kadeteek eta bihar benjaminek jokatuko dute » 7



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **5 bono bikoitz** ditu

Alurr dantza taldearen **SUA** ikuskizuna

Ekainak 12 • **Ostirala**
22:30ean
Villabonako Gurea Zineman



Alurr eta **Korrontzi**ren emanaldietarako



Korrontzi folk taldearen musika kontzertua

Ekainak 13 • **Larunbata** • 22:30ean
Villabonako Olaederra Kiroldegian

emanaldi berezia!
Kontzertuko 5 abestirekin
OINKARIK dantza egingo du!

TXOKOR hitza

sarrerak eskuratzeko deitu gaur 12:00ak arte: **943-65 56 95**

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Noiz arte kolektoreko lanak?

Kokoteraino nago Tolosako auto zirkulazioarekin eta egunen batean lehertzeko zorian. Noiz bukatuko dira kolektorearen lan santu hoiek? pazientzia eskatu ziguten udaletxe ahaltsutik lanak hasi aurretik baina niri behintzat agortu zait. Gainera Espainiako printzesaren eskuetatik «Ciudad sostenible» saria jaso duela eta DVren portadan ikusi behar gure alkatea. Ez adarrik jo! Sari hori eman dutenek, ikusi al zituzten (erakutsi al zizkieten) Tolosako auzoetako «fabelak», txakur-txabola baime-nik gabeak, txerri granjak eta abar, Renfe-ren terrenoetan trenbide-alboan eginak?

Luisan (Pazientzia galdu duen tolosar bat)

Zorionak eta mila esker!

Alegiar bat naiz, eta joan den igandean, herri honetan egin zen festa esanguratsuari buruzko eskertza egin nahi nuke. Eskertza jende askori egin beharko litzaiok, bertan beraien lana erakutsi zutenei, aintzat hartu eta garai bateko arropak jantzita joan zirenei, baina nik guztien gainetik hau dena posible egin duen antolakuntzari eman nahi dizkiet eskerrak bai baitakit ederki asko zenbat lan dagoen horrelako festa baten atzean: zenbat ez garai-ko bilera, etxean norbaitek «orain ere bileratik berandu zatoz...»; zenbat telefono dei, «hau edo beste nork egingo ote luke?»; «aspalditik lotutako ekitaldi hau ez omen da egingo, ezin omen dute eta etorri...» zenbat buruhauste, zenbat kezka, eta gutxi balitz eguraldiaren prebisioaren zain eguneror...

Ez zarete guztiok, leku txiki honetan sartzen, beraz, mila esker eta zuei zorionak! inoiz ez bezela, herri honetan gozama, gogoa eta zergatik ez ilusioa zabaldu zenute-lako joan den asteburuan. Gu, horrelako festa bat berriro, gai honekin eta beste batekin, gozatzeko pronto gaude, bai zaharrak, gazte-

ak, umeak, alegiarrak berriro joan den igandean bezala herrian bilduko gaituen zerbaiten zain, horrela egin eta eraikiko baitugu herria.

Zorionak eta mila esker
Alegiar bat.

Organoak emateko sinadurak

Alcer-ekoak egon ziren lehengo larunbatean Tolosan, San Frantzisko elizaren aurrean eta jendeak, organoak eman nahi badute bete beharreko paperak bete ahal izan zituzten bertan. Batzuk-batzuk animatu ziren eta laguntzeko prest dagoen jendea dagoela ikusteak poztu ninduen. Eskerrik asko sinatu zenutenei! Hauen beharra duen jende asko dago eta egongo da eta!

Mikel.

Laskorain abesbatza Paz de Zigandara!

Ostiralean goizean Atarrabiko Paz de Zigandara goaz Laskorain Abesbatzakook. Aurreko batean Tolosa bisitatu zuten eta emanaldia eskaini zuten gurearen ondoren. Bada, ostiralean gure txanda da.

Bestetik, igandean jaialdi berezia egingo dugu kurtsio bukaera iragartzeko. Usabalen elkartuko gara eta zehazki gure saioa 12:30ean izango da. Txikiak ere hartuko dute parte bertan, eta emanaldian urtean zehar ikasitako abesti batzuk kantatuko ditugu. Guztira 30 minutu inguru ariko gara. Gonbidatuta zaudete denak!!

Laskoraindik

Sakramentinotako Laskorain Ikastolari: errespetua mesedez!

Berazubiko Elkano kaleko bizilaguna naiz eta gaeuz lan egiten dut. Goizeko bederatzietan jartzen da martxan eguneroko Laskorain-Sakramentinoetako megafonia haur kantekin. Gaur, goizeko hamarre-



Batzuk organoak ematera animatu eta paperak bete zituzten. HITZA



Hirukideko alebin neskek lehen postua lortu dute Gipuzkoakoan. HITZA

tan ere, oraindik martxan zegoen musika, «a tope». Oso pedagogikoa izango da, ez dut zalantzarik, baina eskertuko nuke, bolumena dezente jaitsiko bazenute: gauean lo egin duenari, ondoeza handia eragiten dio, goizeko bederatzietan eguneroko musika hori jasan behar. Bidebategi: Inaunteriak baino hainbat aste lehenago, goiz oso-ko saioak izaten dira larunbatero, konpartsen ensaioekin. Jarri zaitzte gure lekuan, arren. Bestela, joango gara gu, zuek klaseak ematen ari zaretenean, aldamenen txaranga jotzera!

Aitor.

Semaforoak euskaraz?

Eskualdeko semaforoetan kartel batzuk agertu dira, *Semaforoak euskaraz* leloarekin. Harrigarriena da kartelak ez dituela inork sinatu, eta inork ez duela bere gain hartu kanpaina hori. Oinezkoek zein gidariek harriduraz hartu dute kanpaina, eta herritarren artean hainbat hipotesi zabaldu dira, baina inork ez daki erabateko ziu-



Kartelak azaldu dira semaforoetan.

tasunez nondik sortu den kartel horiek jartzearena. Nork ipini ditu kartelak? Zertarako? Zeresan nahi du *Semaforoak euskaraz* horrek? Galdera asko daude erantzun gabe. Zer ote da?
Tolosar bat

Zorionak!

Gipuzkoako Atletismoko eskolen arteko Txapelketan Hirukideko alebin neskek txapelkunak izan dira. Alebin mutilak, berriz, hiru-garrenak. Zorionak!

Zorionak!
Hirukidetik

K **Kirol jarduera****Bihar, larunbata****Mendizaletasuna**

■ 10:00etatik aurrera, Aralarko Adiskideak elkarteak antolatuta, Erriora mendi igoera izango da. Lasterketa Triangulotik abiatuko da.

Saskibaloia

■ Saskibaloia kalea: 3x3. 09:00etatik 13:00etara Gernikako arbolan; arratsaldean San Frantzisko ibiltokian.

Areto futbola

■ Uzturpe (Santa Luzi) pilotalekuan Tolosa Kup 09ko partidak izango dira arratsaldean. Final-laurdenak: 16:00etan, F partida: Txorimaloak-Celtic Power (kontrola, 30 Xentimo eta Bikutz). 16:50ean, E partida: De Patxis-Hoberena (kontrola, San Juanetan eta Plomitos). 17:40ean, G partida: 30 xentimo-Bikutz (kontrola, Txorimaloak eta Celtic Power). 18:30ean, H partida: San Juanetan-Plomitos (kontrola, De Patxis eta Hoberena).

Etzi, igandea**'Kirolari ateak zabalik'**

■ Usabal kiroldegia zabalik izango da 09:00etatik 14:00etara, bertan 10:00etatik aurrera rokodromoan Oargiko eskaladoreak egongo dira, nahi duenak eskalada proba dezan.

■ Zezen plazan: 11:00etan zaldiak doan zaldi gainean pixka bat ibiltzeko aukera.

■ *Patinetan Tolosatik* egingo dute bidegorria erabiliz, goizeko 11:00etan Beotibar pilotalekuaren aurrean bilduko dira eta bertatik hasiko da. Txus Caballerok gidari lanak egingo ditu eta familie zuzenduta (gurasoek eta seme-alabak) izango da.

Areto futbola

■ Uzturpe (Santa Luzi) pilotalekuan Tolosa Kup 09ko partidak jokatuko dituzte arratsaldean: Finalerdia izango dituzte. Lehen final-laurrekoa 16:00etan hasiko da. Bezperan jokatutako F eta H partidako irabazleek elkarren aurka jokatuko dute. Ondoren, 17:00etan, bigarren finalerdia izango da eta E eta G partidako irabazleak ariko dira nor baino nor.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Oier Zaldua eta Marina Izagirre tolosar gazteekin lau asteburutan zehar patinetan ibiltzen ikasten aritu dira Ikaztegieta; bihar, bidegorrian zehar ibiliz bukatuko dute ikastaroa.

Zortzi gurpilen gainean

NEREA URBIZU

Patinen gainean aritzea erraza ematen badu ere, txikitatik ez bada hasten, gero pixka bat kosta egiten da... Heldu, gazte, zein txikiak hartu dute parte Udalak antolaturiko patinaje ikastaroan. Udalak izena emateko epea zabaldu eta arrakasta handia izan zuen; bi prestatzaile joan dira larunbatero bertara. Bata txiki eta gaztetxoekin aritzeko eta bestea helduekin egoteko.

Oier Zalduarekin eta Marina Izagirrearekin aritu dira ikasten hila bete batez, larunbatero Ikaztegieta frontoian edota plazan elkartuz, eguraldiaren arabera beti.

Kaskoa ez zen inoren buruan falta, behar bezala beraz. Erori izan direnetan barre egin, eta berriaz patinatzen. Ez da inor desanimatu, dena jolas giroan eta ondo pasatzeko egin baitute.

Guztira 33 ikasle

Helduak eta txikiak, guztira 33 ikasle elkartu dira astean behin. Orokorrean, oreka mantentzea eta



Handien taldean batzuk erori izan dira ikastaroan zehar baina beti umorez hartu izan dute. «Oso ondo» pasa dute. N.U.

irritatzen ikastea lortu dute. Hala ere, lau eguneko kontua izan da, eta oso ondo ikasi baino, patinekin gozatzea eta beldurra kentzea izan da helburu nagusia. Bihar, honen erakusle bidegorrian egingo duten ibilaldia izango da, hezitzaile eta guzti.



Zailena frenatzea eta kurba hartzea omen da. N. URBIZU



Txikien mailan 16 aritu dira ikasten, Marina Izagirrearekin. N. URBIZU

Kirol Eguna larunbatero ospatuko dute, goizetik hasita arratsaldera arte

Ikaztegieta » Bidegorrian zehar Legorretaraino eta bueltaabiaturiko dira, patinetan edo bizikletan.

N. URBIZU

Bihar, larunbata, Ikaztegieta Kirol Eguna izango dute. Berez, Eusko Jaurlaritzak igandean ospatzen du *Kirolari ateak zabalik* eguna, baina Eskola Txikien Eguna ere izatearekin, Ikaztegieta egun bat aurreratu egin du eta egitarau berezia antolatu du Udalak honetarako: ibilaldia bidegorrian zehar, pilota partidak, bazkaria eta futbola, hain zuzen ere.

Patinaje ikastaroa izan dute hila betean zehar herrian eta besteak beste, hori aprobetxatuz, bidegorritik Legorretaraino eta buelta egingo dute goizean, nahi duenak patinetan eta nahi duenak bizikletan. 11:00etan abiatuko dira plaza-tik horretarako, taldean joanez.

Egurdian pilota eta bazkaria taldean

12:00etan frontoian herriko pilotariak (Elordi-Herrigintza) ariko dira partidak jokatzeko, gehienbat gaztetxoak. Pilota partidak bukatu ondoren, bazkaltzeko bertako parke-zelaian elkartuko dira, kiroldegian beraz, bakoitzak berea eramanez (eguraldi txarrekin frontoian).

Kirol Egunarekin bukatzeko arratsaldean, 17:00etan hasita, herriko gaztetxo nahiz helduek osatutako hainbat talde futbolean arituko dira ligaxkan jokatzeko. Hauek ere kiroldegian izango dira. Barre batzuk egiteko ere balioko du seguruenik...

maila zuten edo. Gero gutxinaka gauza gehiago egin dituzte, beti ere seguru sentitzen baziren.

Zertan zentratu zara gehienbat? Denetik egin dugu: ez da ikastaro serio bat izan, baina frenatzea, nola irristatu... Bukaeran jolasak egin ditugu.

Zeri diote beldurra?

Txikiak ia ezere ez, baina helduek, gehienbat erortzeari. Normala da ere, min hartzerik ez du inork nahi. **Eta gehien kostatzen dena?** Nire ustez, helduengan ikusita, frenatzen ondo ikastea eta kurbak egoki hartzea edo hankak gurutzatuz.

Orien bidegorriarekin ez da jende gehiago patinetan ikusten?

Bai, jende gehiago dabil, zabalzen ari da. Hala ere, jendea begira gelditzen da oraindik. Egia da ere, patinetan dabilen jendea ikusten dudala eta askok ez dute kaskoa eramaten: hori oso arriskutsua da, kaskoa derrigorrezkoa da.

«Helduei patinatzen irakastearekin asko ikasi dut, esperientzia ona izan da, gustatu zait»

OIER ZALDUA » Patinatzailea

Tolosa » Txikitatik egindako kirola da patinatzearena Oier Zalduarentzat; helduei klaseak ematen aritu da.

N. URBIZU

Oier Zaldua 16 urteko gazte tolosarra da. Ikaztegieta bere irakasle batek proposatu zion klaseak ematea eta baiezkoa izan zen bere erantzuna. Txiki-txikitatik aritu izan da patinetan, Laskorain ikastolan hasi zen. «Oso gustura» aritu da Ikaztegieta.



N.U.

Zenbat ikasle izan dituzu?

16 ume eta 17 heldu. Helduekin ni aritu naiz eta txikiekin berriz, Izaskungo Marina Izagirre.

Zenbat klase eman dituzte?

Lau egin ditugu eta biharkoa berezia izango da. Bidegorritik barrera Ikaztegieta Legorretarako tramoa egingo dugu.

Patinen gainean erraz ibiltzen zara. Noiz hasi zinen?

Laskorain ikastolan eskaintza egin zuten eta txiki-txikitatik hasi nintzen. Garai hartan Natxorekin eta Zuriñerarekin ikasten genuen, Iruñetik erortzen ziren. Taldean ere aritu nintzen. Gaur egun ez dago

talderik. Orain bertako irakasle naiz ere, Laskorainen.

Beraz, gustuko duzu irakastea?

Bai, oso gustuko dut. Helduekin ez dut inoiz lan egin, ez Ikaztegieta bezala eta gustatu zait. Gainera, asko ikasten dut ere; probatzen zoaz, eta klaseak beste batzuei emateko balio dizu. Esperientzia hartzen zoaz. Klaseak berriz emango nituzke.

Beraz, Ikaztegieta gustura?

Bai, oso. Espero baino hobe: uste nuen gutxiago jakingo zutela eta denek zutik egoten bazekiten. Lehenengo egunean bueltaka aritu ziren, ikusteko zenbaterainoko



Apirilean egin zuten Udaberrikoek Dantzari Txiki Eguna. N. URBIZU

Dantzari txikiz beteko dira bihar Alde Zaharreko kaleak

Tolosa » 250 dantzari inguru ariko dira 10:30etik aurrera; 12:30ean Plaza Berrian eskainiko dute guztiek emanaldia.

ERREDAKZIOA

Dantzari txikiak dantzan ikusteko aukera izango da bihar goizean Tolosako Alde Zaharreko kaleetan. Udaberri dantza taldeak antolatutako ekimena da, eta Alde Zaharra Dendak elkarteak lagunduko du.

Guztira 250 lagun inguru ariko dira dantzan. Hauek guztiak Tolosa, Hernialde, Villabona, Lizartza, Irura, Ibarra, Zegama eta Alegiako zortzi dantza taldeko kideak.

10:00ak aldera bilduko dira Triangelon, eta 10:30ean hasiko dira dantzekin. Hala, zortzi taldeek banaka eskainiko dituzte dantza saioak Alde Zaharreko kaleetan, eta 12:30ak aldera Plaza Berrian elkartuko dira guztiak batera dantzatzeko.

Ondoren, Alde Zaharra Dendak elkarteak eskainita, Abastosen mokadutxo hartuko dute dantzariak.

Martxo-apirilean antolatzen du Udaberri dantza taldeak Dantzari Txiki Eguna, eta bertara eskualdetik kanpoko hainbat talde gonbidatzen dituzte. Biharko ikasturte bukaerako festa moduko izango da Udaberrirentzat, eta eskualdeko dantzariak ere parte hartzea nahi izan dute.

Alurren ikuskizuna gaur, eta Korrontzi taldea, bihar

Villabona » Ibarra dantza taldeak 'Sua' eskainiko du Gurean; folk kontzertuan Oinkariokoen parte-hartzea izango da.

ERREDAKZIOA

Villabonako Oinkari dantza taldeak antolatuta, dantzarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izan dute herritarrek asteleheneetik Dantza Astearen baitan. Ekimen honekin amaitzeko gaur gauean dantza emanaldia izango da Alurr dantza taldearen eskutik, eta bihar, berriz, musika emanaldia Korrontzi taldearekin, Oinkariokoen parte-hartze bereziarekin.

Villabonako Gurea zinemaren izango da ikusgai, 22:30etik aurrera, Ibarra Alurr dantza taldearen *Sua* emanaldia. *Eneko Haritza* filmaren oinarritutako dantza saioa da. Laugarren aldia da ikuskizuna eskaintzen dutena, Tolosan pasa den urteko azaroen estreinatutako zutenetik. Istorio bat kontatuko dute ibarretan berrikuntzekin hornitutako euskal dantzen bidez, eta 1.609. urtean Lapurdin gertatutakoaren berri emango dute.

Alurr dantza taldeko kideek Edu Muruamendiaren, Alurreko gazteek eta Katixa Pereak eginiko koreografiak dantzatzeko dituzte. Ramon Garcia diseinaturiko jantziak izango dituzte soinean, eta Asier Izagirre izango da efektuko berezien eta argien teknikaria.



Korrontzi folk taldeko kideak. HITZA

Bihar, Korrontzi eta Oinkari

Dantza Astearekin amaitzeko biharguean musika emanaldi berezia izango da Olaederra kiroldegian 22:30etik aurrera. Euskal Herriko folk talde garrantzitsuenetarikoa izango da bertan, Korrontzi taldea, hain zuzen ere. Agus Barandiaranek zuzentzen duen Mungia Folk taldea da Korrontzi, eta beraiekin zuzentzen duen diskoa, *Getxo* izeneko, aurkeztuko dute. Agus Barandiaran (trikitxa eta ahotsa), Alberto Rodriguez (Gitarra eta mandolina), Kike Mora (Baxua), Iker Lope de Bergara (Alboka, whistles, karamilloa, xirula, txistua eta ahotsa) eta Ander Hurtado de Saratxok (Bateria eta perkusioa) osatzen dute taldea.



Emanaldi berezia izango da biharko, izan ere gonbidatu berezi gisa herriko Oinkari dantza taldeak parte hartuko du kontzer-

tuan, Korrontziren hainbat abestiri dantza ezarria.

«Korrontziren oinarria folk eta herriko musika izan da, horregatik gure doinuak ezagunak egiten zaizkio jendeari. Hori dela eta, dantzatutako izateko abesti proposak dira», azaltzen du Agus Barandiaranek. Beraiekin azken lanean, Maia anaiek dantzatzeko dute bi kantetan, eta hortik etorri zitzaizkien Oinkariokoei beraiek ere parte hartzearen ideia. Hain zuzen ere, 6-7 abestitan dantzatzeko dute. «Bihar arratsaldean, kontzertuaren aurretik, egingo dugu entsegua, eta gogotsu gaude emaitza ikusteko», dio Barandiaranek.

Bai gaurko Alurren dantza emanaldirako bai eta biharko Korrontziren kontzerturako sarrerak herriko okindegiatan eta Gureako leihatilan bertan erosi ahaliko dira, 6 eurotan.

AZPEITIA Ekainak 14, Helduen XIX. Ibilaldi Neurtua



Naturaldiaren azken saioa

Tolosa » Luis Rojas Marcosek, bihar Txillida Lekun, emango duen hitzaldiarekin amaituko dira aurtengo jardunaldiak.

ERREDAKZIOA

Bihar itxiko dira aurtengo Naturaldi jardunaldiak, Luis Rojas Marcosek emango duen *Elkartasuna. XXI. mendean bizirik irauteko tresna* hitzaldiarekin. Azken urteetan bezala, azken hitzaldia Txillida Leku museoan izango, 19:30etik aurrera.

Luis Rojas Marcos Psikiatriar irakaslea da New Yorkeko Unibertsitatean, baita hiri hartako Medikuntza Akademiako kide ere, Psikiatriako Estatubatuar Elkartearen kide (Distinguished Life Fellow), Osasun Publikoko Estatubatuar Elkartearen kide eta Medikuntza Aringarriko Estatubatuar Akade-



Luis Rojas Marcos. HITZA

miako kide ere bada. 1995 urtetik 2002 urteko otsailera arte, New Yorkeko Osasuneko eta Ospitale Publikoetako lehendakari exekutiboa ere izan zen. Halaber, Luis Rojas Marcosek artikulu eta iritzi artikulu ugari argitaratu ditu Estatu Batuetako hainbat zientzia aldizkarietan.

Hitzaldian parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da Txillida Leku museoan Zabalaga baserrian jende kopuru mugatu batentzat lekua dagoenez, hitzaldira joan nahi dutenei 943 33 5963 (24 luzapena) zenbakira deitzeko eskatzen diete antolatzaileek.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorren Departamentua da jardunaldien babesle nagusia, baita Landa eta Ingurumeneren Garapenerako Departamentua, Tolosako Udala eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila ere. Arte eta ingurumenaren arteko harremanaren inguruko jardunaldiak izan dira aurtengoa, eta gaiaren inguruko adituak izan dira. Azken urteetan ere, nazioarte mailan ospea duten pertsonaiek hartu dute parte, Mario Molina, Jeremy Rifkin, Eduardo Punset, Margarita Salas, Jose Luis Araujo edota Manuel Patarroyok, besteak beste.

Kontsumo arduratsuari buruz lehiaketa antolatu du Adunako Udalak

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak kontsumo arduratsuari buruzko lehiaketa antolatu du herritarrentzat, ekainaren 5ean ospatu zen Ingurumenaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez. Lehiaketaren helburua herritarrek beraien egunerokotasunetan natur baliabideen aurrezpena eta kudeaketa iraunkor baten alde egitea da.

Lehiaketan gutxienez ondoko lau gaietako bat landu beharko du: garraioa/mugikortasuna, erosketak eta hondakinak, energia eta ura. Bi maila izango dira. Alde batetik 12 urte bitarteko gazteei zuzendutako marrazki lehiaketa. Bestetik kontaktuzun motzei buruzko lehiaketa. Honetan bi maila bereziko dira: 12-16 urte bitartekoena eta 16 urtetik gorakoena. Lanak euskaraz aurkeztu behar dira, udaletxean, eta azken eguna hilaren 16a izango da.

Bestalde, gaur *Tierra* fima ikus-teko aukera izango dute udaletxe-ko kultur aretoan, 21:30ean. Sarre-ra 1,50 eurokoa izango da eta eskolako haurrek antolatutako hezkuntza mailako ekimenetan laguntzeko erabiliko da.

Argazki zaharrak biltzen jarraitzen dute Irurako jubilatuek

ERREDAKZIOA

Irurako jubilatuek jarraitzen dute argazki zaharren bilduma egiten eta berririo gogorarazi nahi dute *Irurako sendiak eta familiak* dela aukeraturatua gaia. Jubilatuek zehaztu dutenez, argazkiak gurasoak bere seme-alabekin agertzen diren 1970. urtea baino lehenago-koak izan behar dute, Iruran bizitu zirenak edo bizi direnak.

Oraingoz badira 30 familiatik gora beraien argazkiak utzi dituztenak eta beste batzuek agindu dute utziko dituztela. Argazkiak uzten dituztenei kopia bat atara eta berehalaitzuliko zaie.

Sendien artean bilaketan ari direnei edo ahaztuta daudenei, jubilatuek eskertuko lieke beraien ahalegina lehen bailehen burutzeta. «Gure asmoa da, bilduma osatzen denean, herriari erakutsi egun batzuetan eta gero udaletxe-angorde herriarenezaugarri bezala etorkizunerako». Lagundu nahi duten guztiak herremantetan jarri beharko dute Zaharren Biltzoki zuzendaritzarekin.

Udalaren asmoa sanjoanetarako: «Egunero festa giroa izan dadila»

Tolosa » Hilaren 20tik 25era izango dira jaiak eta Koadrila Egunarekin eta txupinazoarekin emango diete hasiera.

IMANOL GARCIA

Andoni Iturzaeta Kultura zinegotziak eta Jokin Monfort Jaietako teknikariak aurkeztu zuten atzo San Joan jaietako egitaraua. Aurretan, San Joan Eguna asteazkena egokitu da eta asteburuan ekitaldiak antolatu nahi direnez, egun gehiago izango dute festek. Festa Batzordeko kideek azaldu dutenez, egun guztietan «festa giroa izatea» da egitarauaren helburua. «Esfortzu handia egin da egun guztietan festa giroa izateko, egun gehiago izan arren iazko aurrekontua mantendu baitugu», azaldu zuten Iturzaetak.

Bihar hainbat ekitaldi izango dira ere, festen mamia hilaren 20an hasiko da, Koadrilen Eguna erekin. Iaz bezala, txupinazoa botako da, baina oraindik Udaletik ez dute azaldu nahi izan zeinek botako duen, baieztapenaren zain dau-



Jokin Monfort eta Andoni Iturzaeta, egitarauaren aurkezpenean. I. GARCIA

delako. 20tik 25era bitartean izango dira festak. Azken egunean ekitaldi bakarra izango da, Tolosand blues jaialdiarekin zerikusia duena. Raimundo Amadorrek eta Naco Goñik kontzertua emango dute Plaza Berrian.

Aurretan, zezenketarik ez
Egitarauari dagokionez, aldaketa nabarmenena zezenketarik ez dela izango da. Azken urteetan zezenketak antolatu dituen enpresak dirua eskatu zion Udalari aurtengoa antolatzeko, bestela ez zela

errentagarria izango esanez. Udalak ez dio dirurik eman eta enpresak erabaki du zezenketarik ez antolatzea. Izkingileak eta zaldi ikusizunak egongo dira zezen plazan.

Ohiko ekitaldiez gain (San Joan sua, alardea, aurrekua...), ez dira faltako ohiko bihurtzen ari direnak: batel txapelketa, su artifizialak, musika kontzertuak, koadrila eguna, haurrentzako parkea... «Adin guztientzako nahi adina jarduerak, tolosarrak herrian geldi daitezen», diote erronka moduan Iturzaetak eta Monfortek. Iaz ha-

» BIHARKO EGITARAUA

- **10:00.** Goiz eta arratsaldean, San Frantzisko pasealekuan, kale saskibaloia (3x3), X. San Joan saria.
- **16:00.** Graffiti erakusketa Triangulean.
- **16:00.** Skate lehiaketa Lopez-Mendizabal pasealekuan.
- **18:00.** Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia Leidorren.
- **19:30.** Lopez-Mendizabal pasealekuan Borderline taldearen kontzertua.

sitako ekimenarekin jarraituz, aurretan 150 eskopetariak eskopeta seguruagoak izango dituzte alardean parte hartzeko.

Bestalde, San Joan festen inguruan hainbat ekimen izango dira. Horietako bat, hilaren 19an Tibeti buruzkoak *Budasene exilio* dokumentala, Jhampa Zopa eta Nawang Lhamo monje tibetarren hitzaldia eta Mungod-eko Thapo Khangtsen monastegiko monjeen *Tibeteko kantu sakratuak* kontzertua. Hilaren 20tik 24era Tibeteko argazki eta eskulangintza erakusketa izango da.

Euskadiko Halterofilia Txapelketa, bihar Olaederra kiroldegian

ERREDAKZIOA

Villabonako Olaederra kiroldegi-ko frontoian Euskadiko Halterofilia Txapelketa jokatu dute bihar, 17:00etatik aurrera. Danena-Olaederra taldeak antolatu du, Villabonako Udalaren laguntzarekin. Eguraldi txarra eginez gero Behar-Zana frontoian egingo dute. Txapelketa honetan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako kadete eta promesak diren 28 pul-sularik hartuko dute parte.

Bestalde, hainbat txapelketa jokatuko dituzte Danena-Olaederra-koekazkenaldian. Gipuzkoako Senior Txapelketa, 77 kiloko mailan lehenengo eta bigarren postua taldeko Francisco Gonzalezek eta Javier Muñozek lortu zuten. Banakako sailkapen orokorrean, Francisco Gonzalez izan zen txapel-duna.

III. Euskadiko Liga kadete mailan Iñaki Zubelzu 2. postua lortu zuen, Adrian Sasiainek hirugarrena, Alain Moledek bosgarrena, Asier Gallegok seigarrena eta Joseba Arratek hamargarrena. Taldeko sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuen Gipuzkoako selekzioak eta bertako kide

guztiak Danena-Olaederrakoak ziren.

Espainako Unibertsitateko Txapelketa jokatu zuten Madrilen eta Danena-Olaederra taldeko Jon Sasiainek txapela eskuratu zuen 62 kiloko mailan eta banakako sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuen EHU ordezkatuz. «Aipatzekoa da Sasiainek lortu duena, Bilbon egiten ari den ikasketek ez baitiote denbora libre askorik uzten entrenatzeko», diote taldetik.

Iker Hernandez 17 urte azpiko Munduko Txapelketan

Tailandiako Chiangmai hirian 17 urte azpiko Munduko Txapelketa izan da jokoan orain gutxi eta Danena-Olaederrako Iker Hernandezek Espainiako selekzioarekin parte hartu zuen, 62 kiloko mailan. Txapelketa 2010. urtean hiri horretan ospatuko den Gazteen Olimpiadarako baliozgarria da. Hernandezek ez zuen zorte handirik izan eta oso zaila den maila horretan 25. postuan sailkatu zen. Irailan Eliatan (Israelen) jokatu den Europako txapelketan beste aukera bat izango du bere maila erakusteko.



130 haur elkartu dira bazkaltzen

ANOETA » Herriko festen baitan Haurren Eguna zen atzokoa eta aurretan berritasuna izan den haurren bazkaria arrakastatsua izan da. 130 gazte-ko elkartu ziren frontoian. Gaurkorako jubilatuen arteko toka txapelketa (11:00), buruhandi eta erraldoien kalejira (16:30), ume eta helduen play-backa (18:00), pala partidak mistoak eta afizionatuen pilota partida (22:00) eta Lauroba eta Vendettaren kontzertua (00:00) izango dira. i.e.



Loredun balkoiak, leihoak edo lorategiak sarituko dituzte

Berastegi » Kultura batzordekideek antolatuta dute 'Berastegi lorez blai' txapelketa; astelehena bitarte eman daiteke izena.

REBEKA CALVO

Berastegiko Kultura Batzordeak jakinarazi duenez, *Berastegi lorez blai* txapelketa antolatuta dute. Helburua «landare zehin lorez apainduriko herriko balkoi, leiho zein lorategi onenen jabeak saritzea» delarik. Izena emateko Udaletxe-

ra jo behar da, 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta edota sebas@berastegi.com helbidera idatzita, eta azken eguna hilak 15 izango da, hau da datorren astelehenean. Bi sari banatuko dituzte: lorategie eskainitako bata eta leiho, balkoi edota terrazen artean banatutakoa, bestea.

Parte hartu nahi dutenek izen abizenak eman beharko dituzte, etxearen datuak, telefono zenbakia eta zein txapelketara aurkeztu den (lorategietakoa; balkoia, terraza edota leihoena; edo bietara). Batzordekideak eta lorezain-

tza teknikaria uztaile erdialdean pasako dira partaideen etxean ondotik ikuskapena egitera eta kanpotik, kaletik, bakarrrik ikusten dena baloratuko dute.

Epaileek argazkiak aterako dituzte eta ondoren, Udaletxean, Gaztainondon eta herriko webgunean eslegiko dituzte.

Puntuaketa eta sariak

Puntuaketa honakoa izango da: %50 udal batzordekideek eta lorezaintza teknikariak emango du eta beste %50 Berastegiko webgunean, Gaztainondon eta Udalaren

bulegoetan herritarrek emandako bozkei esker banatuko dute.

Bozkak uztailaren 20etik 30era eman ahal izango dira eta pertsona bakoitzak bi bozka eman ahal izango ditu, jardinen txapelketarako bata eta beste mailarako bestea. Sariak herriko jaietako, sanlontzotako, herri afari ostean banatuko dituzte.

Guztira lau sari banatuko dituzte. Lorategien atalean, lehenengo saria 200 euroko lore txartela, diploma eta lore bat izango da eta bigarrenagoa, aldiz, 100 euroko lore txartela, diploma eta lore bat.

Balkoi, terraza edota leiho txapelketaren atalean lehen saria 200 eurotako lore txartela, diploma eta lore bat izango da eta bigarrena 100 euro txartela, diploma eta lore bat.

Ostegunero izango da azoka Emeterio Arresen

Ibarra » Ostegunetan 08:00etatik 13:30era egongo da azoka; jakieze gain, maindireak eta arropa ere erosi ahal izango da.

REBEKA CALVO

Ibarrako Udalak azaldu duenez, zerbitzu berri bat izango du herriak datorren ostegunetik aurrera. Izan ere, udal-azoka abiaraziko dute estreinakoz eta egun horretatik aurrera astero ospatuko da.

Udalerriko bizilagunek produktua eskaintza zabal bat izango dute aukeran ostegunero 08:00etatik

13:30era Emeterio Arrese plazan. Asteroko azokan postu mota ezberdinak egongo dira, besteak beste, hestebeteak, gazta, fruta eta barrazkiak, pastak eta gozokiak.

Bakailao, oliba eta fruitu lehorren eskaintza ere egongo dela aurrerikusten du Udalak.

Beste postu batzuek berriz ehungintza eta jantzigintza, gazteentzako arropa, oinetakoa eta osagarriak eskainiko dituzte, hala nola, poltsak, aterkiak edota bitxi desberdinak.

Era berean, ibarretarrek maindireak eta beste hainbat produktu erosi ahal izango dituzte ostegun gozetan.



Azken urteetan urtean behin egiten zuten azoka berezia. A. OTEZABAL

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Ezinduentzako garraio bidea.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurpildun aulki elektrikoak salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. 605 771 607.
- **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Kotxearekin

edo kotxerik gabe. Informazio gehiagorako: 616 542 960.

ALOKAIRUA

- **Apartamentua.** Jakan 2 logeletako apartamentua alokatzen da abuzturako edo hamabostaldira. Guzti osatua. Garajea eta igerilekura begira. Umeeekin joateko aproposa. 649 208 984.

VI. Hitza Txapelketako partidak asteburuan

Pilota » Gaur Albizturren eta Adunan izango dira partidak, bihar Berastegin eta Tolosan eta igandean ere Beotibarren ariko dira.

ERREDAKZIOA

VI. Hitza Pilota Txapelketak aurrera darrai eta asteburu honetan ere partidak izango dira. Gaur bertan 19:00etatik aurrera Albizturren hasiberri mailako Zubeldia-Urdanpilleta Saenz-Bakaikuaren kontra ariko dira; Peña-Egiguren Marketegi-Arrizabalagaren aurka; eta Aizpuru-Zubiaurre Iturbe-Mendiaren aurka. Ordu berean baina Adunan Otaegi-Galarra Muga-Iruretagoienaren aurka ariko da; Ontxalo-Goñi Olano-Tolosaren aurka; eta Aizpuru-Arrue Larrea-Iribarriaren kontra. Bihar, aldiz, Berastegin 16:00etatik aurrera benjamin mailako Murua-Zubeldia Salaberria-J. Zinkunegiren aurka ariko dira; Gelbentzu-Zibuzarreta Agirre-Ugartemendiaren aurka; eta Bergantinos-Zubeldia Osa-Aranbururen kontra.

Gainontzeko partidak finalurrekoak izango dira. Tolosako Beotibarren bihar 11:00etan jubenil mailako Ezkurdia-Lukin Tainta-Iturriagaren arteko norgehiagoka izango da eta 12:00etan kadeteetako Azketa eta Ariztimuño izango dira. Igandean, aldiz, Tolosan 12:00etan jubenilen finalurrekoak izango dira. Jauregi-K. Galarza X. Urbieta-Zinkunegiren aurka.

Bidanian ere izango dira finalurrekoak, baina asteartean izango dira 19:00etan. Kadete mailako Labaka eta Jaka ariko dira.



Aurreko saioetako irudia. N. URBIJU

Laburrak

1966 eta 1970 urteetan jaiotakoan kinto afaria

BERASTEGI » Azken urteetan bezala 1966 eta 1970 urteetan jaiotako berastegitarrek kinto afaria antolatuta dute. Afarria hilaren 20an izango da, baina izen-ematea astelehenean amaituko da. Izena emateko 656 710 073 telefonora dei daitezke 20:00etatik 21:00etara.

Matxin III-San Migel eta Uterga-Iriarte bihar

IRURA » Bihar jokatu dute Iruran I. Erremonte Kopako final-laurdeneko partida. Hauek izango dira jokalariek: Matxin III-San Migel eta Uterga-Iriarte. Hauek baino lehenago, 22:00etan, Matxin VI-Agirrezabala eta Etxabell-Aizpuru II ere ariko dira.

Astelehenetik aurrera eskatu ahal dira Ibarren euskara ikasleen diru laguntzak

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak euskara ikasten ari diren ibarretarrei diru laguntzak emateko epea irekiko du datorren astelehenean, hilak 15. 2008-2009 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ibarretarrei emango diete diru laguntza.

Hau jaso ahal izateko euskara ikasleek eskaera-orria ondo bete eta nortasun agiriaren fotokopiarrekin batera joan behar dira Udaletxeko Euskara Zerbitzuan uztailaren 30a baino lehen.

Diru laguntza jasotzeko hauek dira bete beharreko baldintzak: Ibarroko erroldan izena emanda egotea gutxienez sei hilabetean, ikastaroa amaituta eduki eta gutxienez %85eko asistentzia bermatuta edukitzea.

Horretaz gain, irakasle edo eskualtegiak ikasleen errendimenduari buruz txostena egin beharko du. Diru laguntzaren zenbatekoari dagokionez, ikasturte edo ikastaro bakoitzeko matrikularen %75 emango da. Barnetegia eginez gero, kostu osoaren (matrikula gehi pensioa, ez, ordea materiala) erdiaren %75 ordainduko da.

Eskabideak eskuragarri daude Udaletxeko Euskara Zerbitzuan eta baita www.ibarrakoudala.net webgunean ere, euskarako diru laguntzen atalean.

Lizartzarrek Ina Zeberio eta 'Naparra' ekarriko dituzte gogora

ERREDAKZIOA

Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra* desagertu zela 29 urte betetzen direla eta Ina Zeberio erail zutela 11 urte pasa direla baliatuz lizartzarrek hainbat ekitaldi egingo dituzte. Ina Zeberio orain 11 urte hil zuten ertzainek Gernikako (Bizkaia) Pablo Picasso kaleko etxebizitzara batean.

Naparraren desagertzea gogoratzeko igandean, hilak 14, 12:00etan ekitaldia egingo dute Igarola Bekoa baserrian. Ina Zeberiori dagokionez, bihar, Gernikan egingo dute ekitaldia; 13:00etan erauldako tokian txalapartariak, bertsoariak eta hizlaria izango dira. Igandean, aldiz, 09:00etan mendiko martxa egingo dute Axurdaia eta 13:00etan ekitaldia izango da monolitoaren aurrean. 14:30ean bazkaria egingo dute elkartean eta tabernetan erosi daitezke txartelak.



Nafar Jokoetako finalak gaur eta bihar jokatuko dira Iruñeko Labrit pilotalekuan. Aurrerakoak bertan egongo dira. HITZA

Aurrerako hiru bikotek Nafar Jokoen finalak jokatuko dituzte Labriten

Leitza » Iruñeko Labriten gaur eta bihar jokatuko dituzte finalak; horretaz gain hainbat herritako txapelketak jokatuko dira.

ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan atsedean hartuko du Leitzak asteburu honetan. Hala eta guztiz ere, Aurrerako pilotariak partida ugari jokatuko dituzte gaur, bihar eta etzi. Hauen artean, Nafar Jokoen finalak azpimarratu behar dira.

Nafar Jokoen finalak

Iruñeko Labrit pilotalekuan Nafar Jokoen finalak jokatuko dituzte gaur eta bihar. Bertan, Aurrerako sei pilotari egongo dira.

Mikel Sagastibeltza Egües-Xabi Zubiria bikote infantilak gaur jokatuko dute finala 18:00etan hasiko den jaialdiaren barnean. Leitzarren partida bigarrena izango da. Laugarren norgehiagokan, kade-teetan, Joxerra Aldaregia-Mikel Hernandorenaren txanda izango da.

Aurrerakoek Labriten jokatuko duten hirugarren lehia biharkoa izango da. Benjaminetan, Joseba Eskudero eta Beñat Altzelai irten-go dira kantzara 09:30ean hasiko den jaialdian. Leitzarrek bigarren partida jokatuko dute.

Elgeta, Igeldo eta Iruztzun

Jon Jaunarenak bere partida gaur jokatuko du Elgetako Txapelketan, 22 urte azpikoan mailan. Leitzarrek Mendizabal edukiko du

aurrean eta 21:00etan hasiko den jaialdian, Jaunarenarena hirugarren partida izango da.

Igeldoko Txapelketan Ander Alduntzin eta Beñat Altzelai egongo dira. Hauek etzi jokatuko dute Igeldon, 10:30ean.

Iruztzongo Txapelketari dagokionez, Ibai Barberena-Iñigo Mitxausek etzi jokatuko dute 11:30etik aurrera.

Plazako XVII. Txapelketa

Eskuz Binakako XVII. Plazako Txapelketan B Taldeko 6 partida jokatuko dira bihar 16:00etatik aurrera. Txapelketa herrikoi honetan 15 urtetik gorako pilotariak jokatzen dute. Lehen zatia, ligaxka modukoa, bihar amaituko da. Ondoren, bi taldetako lehen bi bikoteek finalerdiak jokatuko dituzte.

Valentziara joango da Barriola pilotari leitzarra

A. IMAZ

Asteburu honetan joango da Abel Barriola Valentziako (Herrialde Katalanak) La Calderona errehabilitazio zentrona. Leitzako pilotaria astelehenean hasiko da lanean eta bertan bi hilabete luzez egongo da, abuztuaren erdialdean itzultzeko.

Barriolak apirilaren lehen egunetan lesio larria eduki zuen eskuin belaunean. Ebakuntza egin ondoren 6 hilabetetan pilotan jokatuz egongo zela esan zioten. Zioten leitzarri. Hala eta guztiz ere, enpresaren esanetan, Valentziaren denbora horri hilabete eta

erdi edo bi hilabete kentzen saiatuko da pilotaria.

Atsedean hartzeko une gutxi

La Calderona elite mailako kirolarien errehabilitazio zentroa da. Asperen esanetan, Barriola astelehenean ostiralera, bi saiotan, belu-narekin lantzen ariko da. Larunbatean goizeko saioa edukiko du.

Asperen esanetan Barriolaren erabakia izan da: «Hasieran Capbreton-era joateko aukera ere aztertu zuten Abelek, La Calderonarekin batera. Horrenbeste denbora geldirik egon behar zuela jakin

zuenean informatzen hasi zen. Bere ideia lesiotik ahalik eta azkarraren itzultzea da».



Abel Barriola pilotaria. ARRATE OTERMIN

Euskarak batzen gaituelako Berara

Euskara » Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak bere eguna antolatu du bihar Beran.

A. IMAZ

UEMA Eguna ospatuko da bihar Beran (Nafarroa). Areso eta Leitzak, besteak beste, mankomunitate honetan aurkitzen direnez, herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte Udallerri Euskaldunen Mankomunitatek.

Biharko egitaraua

Biharko ospakizunak Euskarak elkartzen gaituelako leloa edukiko du.

Egitarauari dagokionez, Beran ondorengo ekitaldiak antolatu dituzte: Goizean txistulariak eta txaranga ibiliko dira Berako kaleetan. 11:15ean herri kirolak egongo dira. 11:30ean harrera instituzionala egingo zaie ordezkari desberdinei Kultur Etxean. 13:00etan Ekitaldi Nagusia egingo dute. 14:30ean Zikiro Jatearen txanda izango da. Ondoren Haur Txokoa, ipuin kontalaria eta dantzariak egongo dira.

Sagardo Eguna eta Mendi Irteera bihar

Leitza » Mendira 07:30ean irtengo dira plazatik; I. Sagardo Eguna berriz 18:00etan hasiko da Karrapen.

A. IMAZ

Egun osorako plana eskainiko du bihar Leitzak. Goizean Mugarrien hirugarren itzulia egingo dute eta arratsaldean I. Sagardo Eguna.

Mendi Irteera 5-6 ordu ingurukoa izango da eta herriko plazatik 07:30ean abiatuko dira. Mendibil Mendi Taldearen eta Aurrera KE-ren eskutik etorriko da hirugarren itzulia.

I. Sagardo Eguna berriz 18:00etan hasiko da. Karrapen ordu horretan 16 sagardo egile elkartuko dira. Hauekin batera trikitulariak eta bertsoariak egongo dira. Dena edana ez dadin izan, pintxoak ere jarriko dituzte.


Laburrak

Aurrera Elkartean Kantujira gaur 19:00etan

LEITZA • Kantujiraren ekitaldi berri bat izango da gaur Aurreran, 19:00etan hasita. Bertan biltzen diren herritarrek euskal kantuek abestuko dituzte, ohi bezala, baina berrikuntzarentzat lekua ere egongo da. Izan ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez, gaurko saioa Leitzako 15 kantu zaharrek hasiko dute. Ondorioz kantua gustuko duten herritar guztiak Aurrera Elkartera gonbidatu dituzte.

640 kiloko bigarren jardunaldia bihar 17:30ean

ARESO • Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da bihar Erandioko (Bizkaia) Martiartu auzoan. Bertan, 640 kiloko taldeak plazaratuko dira, txapelketaren bigarren jardunaldia jokatzeke asmoz. Aresoko taldeak lehen jardunaldian hirugarren amaitu zuen, Mutrikurekin berdinduta. Bihar 17:30ean hasiko den jaialdian aurrera egin nahiko du Aresoko taldeak.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalde: 687 410 022. anoetalde@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Anoeta.** Korpus jaiak: 11:00etan jubilatuen toka txapelketa; 16:30ean buruhandi eta erraldioen kalejira; 18:00etan ume eta helduen play-backa plazan; 22:00etan pala partida mistoak eta afizionatuen pilota partidak; 24:00etan Lauroba eta Vendettaren kontzertua plazan.
■ **Ibarra.** Gazte Festak: 19:30ean txupinazoa; ondoren Mulanbo perkusio taldearekin kalejira; 21:30ean Barrikotea Gaztetxen (bakoitzak bere afaria ekarri behar du); 23:00etan Des-kontrol+Desakato kontzertuak plazan, tartean ekitaldia

Ikuskizunak

■ **Villabona.** Dantza Astearen barruan, Ibarako Alurr dantza taldeak *Sua* ikuskizuna eskainiko du 22:30ean Gurea aretoan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Angeles y demonios* filma Leidor aretoan gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean eta 22:00etan.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Uztailaren 13ra arte *Sahararrak, herri bat erbesteren* argazki erakusketa ikusgai Ostatuan. Ander gillenea argazkilarik Tindouf-eko errefuxiatu eremuan ateratako argazkiak.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Jai egitaraurako azal lehiaketa helduentzat eta haurrentzat. Gaia: jaiak. 300 euroko saria. Lanak Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira.
■ **Tolosa.** Lizardi konpainian eskopetari gisa atera nahi duten neskek deitu telefono hauetara: 600 244693 edo 686 405932.
■ **Tolosa.** Gaur afari turkiarra eta derbiche dantza Fronton jatetxean, Turkiar Astearen baitan.

Irteerak

■ **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatuta du Bizi nahi jubilatuek. Bazkaria Oiar-tzunen. Izen-ematea, elkartean 28 eurotan (ez bazkideek, 30).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Lagunekin eskolara joan-etorria

Tolosa » 'Lagunbusa' ekimena probatzen ari dira aste honetan; ikasle, zaintzaile eta arduradunak «pozik» daude.

ERREDAKZIOA

Datorren urtetik aurrera jarriko dute martxan *Lagunbusa* Laskorain ikastolan eta Samaniego ikastetxean *Eskolara oinez* ekimen berriaren baitan. Ikasturtea amaitze- ar dagoela aste hau proba aste bezala aukeratu dute.

Hala, atzokoan eskolak amaitu eta taldean etxera abiatu ziren Samaniegoko ikasleak. Gaztetxoekin batera, bi heldu laguntzaile joan ziren, bata aurretik, eta bestea atzetik. Hauak, *Lagunbusean* joan behar dutenen zerranda, eta bakoitzaren datuak zituen, nolabaiteko kontrola eman ahal izan dezan. Bestalde, ibilbidean zehar, beste laguntzaile batzuk ere izango dira, dendari, tabernari... zerbait gertatu gero, hauengana jo ahal izateko gaztetxoek nahiz arduradunek.

Umeak, behintzat, gustura zihozaz euren txapel berdea buruan; zaintzaileen iritziz ere ideia ona da *Lagunbusean*. «Adin batzuetan ez dute autobus zerbitzurik eta horrela guztiak elkarrekin joan daitezke; guri oso ideia ona iruditzen zaigu», zioten zaintzaile lanetan ari ziren gurasoek.



Txapel berdea buruan taldean joaten dira etxera ikasleak, bidean geldialdiak eginez; proba astea da. I. TERRADILLOS

«Kutsadura gutxiago, istripuak ekidin, auto kopurua gutxitu,... Haurrak ikastetxera oinez joatea bultzatu nahi dute, gurasoen laguntzarik gabe. Bestalde, harremanak egiteko eta ongi pasatzeko modu gisa ere ikusten dute Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako zuzendariak *Lagunbusean*.

Halaber, auto eta autobus erabilera gutxitzea nahi dute ikastetxeetako arduradunak eta udal

ordezkariek. Honek ekarriko litzukeen onurekin, hala nola, kutsadura gutxiago sortzearekin eta zenbait istripu ekiditearekin. Bestalde, *Lagunbusean* ikasleek autonomia eta arduratsutasun espero dute.

Ikastetxeetan bertan zabalitzen ari dira proiektuaren inguruko informazioa, eta parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dutela ere adierazi dute.

Ekimenaren jatorria

Tolosaldeko Ingurumen Zentrukoak eta Udaleko langileak ikastetxeekin lanean hasi ziren iazko ikasturtearen hasieran, proiektu hau aurrera eramateko. Hala, beste herri batzuetako esperientziak ikusi eta abar, batzorde bat osatu zuten proiektua lantzeko. Hauak, ikerketa batzuk egin ondoren ibilbide batzuk zehaztu zituzten. Irailtik aurrera ikusiko dira emaitzak.

2009KO ESKOLA TXIKIETAKO FESTA

aurten **BERROBIN**
Ekainaren 14ean



EGITARAUA

- 10:30 Ongi etorria eta festaren hasiera.
- 11:00-13:00 Jokoak eta karaokea.
- 13:30-14:00 Leku aldaketa (Berrobi- Altzo).
- 14:00- Bazkaria (frontoian).
- 16:30-18:00 Pirritx eta Porrotxen emanaldia.
- 17:15-18:00 Motozerraz egindako taila.
- 18:00-19:00 Festari amaiera emateko herriko gazteen trikiritxa erromeria.
- Bestelakoak:

Goizeko 11etatik aurrera goiz eta arratsaldean.

- Puzgarriak.
- Erakusketa digitala Eskolan
- Zaldi paseoak Errota eta Lapatza bitartean
- Tailako tailer erakusketa
- Tailerrak...



**Eskola txikiak bizirik,
herri txikiak bizirik.**

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak